

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 7koa, EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, 2020ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren aldaketei buruzkoa, 2020. urteari dagokion ibilgailu efizienteen eta alternatiboen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntza programaren oinarri arautzaileak deitu, onartu eta argitaratzen dituena (EHAA, 2020/01/29).

Euskal Herriko Agintaritzak Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak, testuingurutik argi ondorioztatzen ez badira, eta haren zuzenketak edukian edo dokumentuaren zentzuan itxurazko zein benetako aldaketaren bat ekar badezake, maila bereko xedapen baten bidez zuzendu edo konponduko dira.

Horrelako hutsak eta omisioak aurkitu dira 2020ko urtarrilaren 17ko Ebazpenean, EEEko zuzendari nagusiarena, 2020. urteari dagokion ibilgailu efizienteen eta alternatiboen aldeko inbertsioak sustatzeko laguntza programaren oinarri arautzaileak deitu, onartu eta argitaratzen dituena, Euskal Herriko Agintaritzak Aldizkarian, 19 zenbakian, 2020ko urtarrilaren 29an, argitaratua, eta, beraz, aldaketa hau egiten da.

2020/431 (9/20) orrialdean, aipatutako laguntza programaren oinarriez ari denean, 4. oinarrian, Jarduera lagungarriak eta dirulaguntzen zenbatekoa,

Honakoa dioenean:

"Ibilgailua txatar bihurtzea 2019ko martxoaren 1etik aurrera egitea".

Honako hau esan behar du:

"Ibilgailua txatar bihurtzea oinarri hauek EHAA-n argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera egitea."

2020/431 (15/20) orrialdean, aipatutako laguntza programaren oinarriez ari denean, 4. oinarrian, Jarduera lagungarriak eta dirulaguntzen zenbatekoa,

Honakoa dioenean:

"Egindako inbertsioaren faktura justifikagarriak (jatorrizko kopiak), sailka zehaztuta, eta 2019ko martxoaren 1etik aurrerako data dutenak. Fakturak onuraduna denak jaulki behar ditu, oinarri hauetako 2.1 atalean zehazten den bezala".

Honako hau esan behar du:

"Egindako inbertsioaren faktura justifikagarriak (jatorrizko kopiak), sailka zehaztuta eta oinarri hauek EHAA-n argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrerako datarekin. Fakturak onuraduna denak jaulki behar ditu, oinarri hauetako 2.1 atalean zehazten den bezala."



Bilbo, 2020ko otsailaren 7a

Zuzendari nagusia,

Iñigo Ansola Kareaga